

Mahai sektoriala eta Itunaren jarraipen batzordeko berri.

STEILASBERRI honetan Mahai Sektorialari eta Itunaren Jarraipen Batzordeari buruzko informazioa duzue.

Hezkuntza publikoko sindikatuekin atzo egindako bileran, Hezkuntza Departamentuak adierazi du: **jardunaldia haunditu bada kontratu berri baten bidez**, 5,5 hilabete lan egin badira, kontratu hori izanen da uztaila eta abuztura luzatuko dena.

2020an atzeratutako LEPari dagokionez, Departamentuak berretsi du lan eskaintza hori egiteko asmoa, betiere osasun egoerak horretarako aukera ematen badu. Datorren astean, gainera, 2020ko birjarpen-tasaren xehetasunak eta etorkizuneko deialdien plangintza iragarriko dituzte.

Laster, aurreko ikasturtean Alarma Egoeran geldiarazitako **2020ko zuzendaritzen deialdiari** berriz ere ekinen diote.

Bestalde, **STEILASek kezka ikusten du Departamentuak Mahai Sektorialean erakutsitako jarrera**. Hezkuntza Departamentuak behin eta berriz ukatu du gaur egun ikastetxeetan gertatzen ari den lan-gaikarga; izan ere, zaintzak ugaritu dira, irakasleen ez etortze justifikatuen ondorioz, dela irakasle konfinatuen kopuru handiagatik (ez dira ordezkatzen), dela bajak ordezkatzeko atzerapenagatik. Hezkuntza Departamentuak azpimarratu du ikastetxeetan sortzen diren beharrak asetzeko COVID-19 baliabideak, baliabide arruntekin batera, nahikoa baino gehiago direla, nahiz eta, irakasle zein zuzendaritza taldeek jakinarazi diguten bezala, adinaren arabera ordu-murrizketari dagozkion saioak edo departamentu bileretara, proiektuetara, koordinaziora eta abarretara bideratutako orduak zaintzak egitera bideratzen ari diren, eskubide murrizketa nabarmena delarik. STEILAS, gainerako sindikatuekin batera, ez dago ados, eta lanaldi partzialak luzatzea, egunero LET deialdia izatea edo LETetan parte hartzeko denbora murriztea proposatu du.

Gaur, bestalde, **Itunaren Jarraipen Batzordea** bildu da. Adierazi nahi dugu Itunean jasotako neurri gehienak oraindik ezarri gabe daudela. Gaurko bileran, Departamentuak 21/22 ikasturtetik aurrera 56 urteko langileentzat zuzeneko irakaskuntzako bi ordu murrizteko konpromisoa baino ez du hartu (55 urteko langileei dagokien murrizketa apolitikatzeko dirurik ez dagoela diote), eta Ekonomia eta Informatika espezialitateetarako departamentu propioak sortzeko konpromisoa ere hartu du.

Balantze negatiboa da, baina negoziazioak aurrera jarraituko du datozen asteetan; eta mobilizatzen jarraituko dugu Ituna osorik bete dadin.

Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da BPGren %6 Hezkuntza Publikora bideratzea, Itunean jasotako neurri guztiak garatzeko eta behar adina giza baliabide eta baliabide material bideratzeko.